

JESUS-EN BIOTZ MAITEAREN
BILLERA EDO CONGREGAZIOA

Bere erregla laburtuac,
berrion-batzuec
eta
sarreraco Chartela.



Bear diran baimenakin.

TOLOSAN:
Francisco Mugerzaren moldiztegian
1884-garren urtean.



JESUS-EN BIOTZ MAITEAREN CONGREGAZIOCO ERREGLA LABURTUAC. (1)

I.

**Nolacoac izan bear duten
Congregazio onetan sartzen diranac.**



ongregazio onetacoac amorez ta damuz erantzun bear diote, Aldareco Sacramentuan JESUSEC, agertzen digun bere Biotzeco amoreari, ta guri-onginaia emen eramazten diozcan, gaiztoen bide-gabeei; baña erantzun bear diote, gañeraco cristauac baño zuzenago ta obeto.

Orregatic:

1. Izan bear dute congreganteac bizitza garbicoac, eta esanbideric ematen ez dutenac.

2. Izan bear dute JESUSEN Biotzeco escolatic ateratzen ez diranac, edo ango umillera, ta mansotasuna icasten dābiltzanac.

3. Izan bear dute congregazioco gauzac zuzen egiten dituztenac; naiz Jesus berari dagozcanac izan, naiz lagun urcoari ta beren animaco onari dagozcanac.

1 Aita Mendiburu-zanac egin da zabalduac bere liburutetan.

II.

Congreganteac egin bear dutena urte-oro.

1. Congregazioan sartzen diranean, ta gero *urte-oro* egingo dute beren confesio generala; baña aldian aldicoa, edo ongien dagokiena.

2. Igaroco dute, alic-ongiena, JESUS-EN Biotzeco festeguna. Fest onetan egiten-dira Erregla luzeac bereisten dituzten gauzac.

3. Ez dute gelditu bear Egerzizioetara-bage orieci dirauten egunetan.

4. Egíngo dute *urte-oro* JESUS-EN Biotzaren bederatziruena.

III.

Ill - oro.

Confesatu ta comulgatuco dira *ill-oro* guñsienean; baita confesari onac bereizten diezten egunetan ere.

Elizan arkituco dira Jesus Sacramentatua agertzen zaien goiz edo arratsaldeetan, ta an egongo dira Erregeen-Errege andiarekin daudenac bezela.

IV.

Aste - oro.

1. Igandeac dira Jaungoicuaaren egun bereziac, eta egun JESUSEN Biotzaren Congreganteac Elizan tagauz-onetan eraman bear dituztenac. Berebat egin bear dute Jai-osoetan.

2. Aísa bizi diranac, eta osasun-ona dutenac, atera

dezakee baruren bat edo beste; ta Congregante guziac egiñ dezakee osti-ralean edo beste egunen batean jan-edan labur, ildura, edo nekezco zerbait beste gauza.

V.

Egun - oro.

1. Jaiki orduco, ziñatu, Jaungoicuari eskerrac eman, ordurañoco bere ontarte ta mesede guziac-gatic; eskeñi egun guzico bere gauzac, eta nekeac; eta escatu, guziraco bear duten beraren laguntza ta grázia, *Aita-gurea* ta *Abe Maria* errezatzen diola. Beste *Aita-gurea* eta *Abe Maria*, Aingeru zaitzen dituenari; beren izeneco santuari beste bat, eta iru *Abe Maria* JESUS-EN Amari, ar ditzaten egun guzico onac Aingueruac eta beren Santuac, beren contura,

Entzun bear dute beren Meza, aldutenac.

2. Aldare-etáco erreguac egitea, ta Errosarioa Elizan, etšecoakiñ, edo bacarrie errezatzea, Congregante onen egun-oroco egitecoa da.

3. Egun-oro, albadute, edo, alduten egunetan, iracurri bear dute libruren batean, zerbait dembora-zati.

4. Elizara ditezkenac, bijoaz, an JESUS ecustera, Mezaric ez dan orduren batean bada ere.

5. Eziñ joan diranac, billa bezate, gogoz bada ere, beren JESUS Sacramentatua, ta eñsetic, menditic, bide-tic, edo dauden tokitic, arganà beren biotza zuzentzen dutela, esan bezate bost aldiz goizetic arratseraño: «*Alu-batua izan dedilla Aldareco Sacramentua, ta Sacramentu artan arkitzen dan JESUS-EN Biotz maitagarria,*» ta geru *Aita gure bat* eta *Abe Maria*.

6. Ziña-bitez eñsetic ateratzean, lanean asitzean, ta edozeiñ beren perill-etan, aldi orietan, ta ordua aditzen dutenetan, esaten dutela *Abe Maria*.

7. Etziñ baño-len ecus-bitzate egiñ dituzten lan-on ta gaišto guciac; gaiztoaz damuturic, egiteco beren onez-damua edo contrizioa; ta egiñ bezate, goizetaraco berezi edo aparte señalatu dan erreguba.

8. Elizacoekin arkitzen dan congregante eriarrenalde, esan bezate Errosario bana: iltzev danean, beste bana; eta orduan entzun bear dute Meza bana; ta egiñ bear-dute Bost aldareetaco erregualdia. Congregazioco cargudunac, eta eñseco carguarekiñ arkitzen diranac, ecus-bitzate, JESUS-EN Biotzaren debozioco libruan arkitzen diran erregla luzeac; zeñac dauden Tolosa-n 1882-an berriro argitaratutaco Aita Mendiburu-renean, laugarren buru edo partean.

Berri - on batzuec.

Zazpi-milla-inguru hadira, diotenez, oraiñ, mundu guzian, Erroma-co leenengo ta nausienarekin bateginda arkitzen diran JESUS-EN Biyotzeco Billerac. Oetatic lembizicoa Españian Lorca-co urian napar-euscaldun Aita Calatayud-ec 1753-urtean jarri zuen. Andic bereala, batez ere Aita Cardaberaz da Mendiburu misiolarien birlez eta bitartez, euscaldun erri asco ta ascotan ipiñiac izan ziran, eta beren illoroco Elizpesta ederra Minerba-igandean edo illaren irrugarrenean egiñ oi zuten. Erreşa da oraiñ ere edozeiñ erri, barriyo, cristau-talde edo comunidadetan JESUS-EN Biotzeco Congregazio edo senidetasun santu berriyac jarriazitzea, eta oen indulgenzi ugari aundi ac irabaztea, escribaturic sartu nai dutenen izenac, canonen edo eliz-arauen erara jarria dagoan Billera batean ezarritzeco, nola dan Azpetico Loyola-n arkitzen dana, Erromacoarekin bateratua 1827-urtetic onuntz. Oso erreşa da Billera santu oetan, orazio edo erregüetaco Apos-

toladutzan daudenac-ere sartzea, beren izenac ortaraco congregazioco zuzentzalleari bialduric. (Mensajero del Cor. de J. Bilbao. 1883, Oct. p. 291. y Nov. p. 338.)

Aitatu degun A. Mendibururen liburuan, A. Cardaberaz-enetan eta beste batzuetan ere arkitzen da Billera ontaco barcazio oso ta partezcoen-berri: baita ere zeñ modu arte ta era ascotan eranzun dezakion gure biotzac, JESUS-ENAC gizon guzioi eta bacoitzari agertu izan digun eta digun amorio azkengabeco ta jaincozcoari, batezere Aldareco Sacramentu Santuban. Orretaraco da erregla bacoitzean esan dana: orretaraco dirá Erregüen-apostoladutza, uztail-osea JESUS-EN Biotzari donekidatze edo consagratzea, Beraganaco bederatziurrenac, aste sagradua, bederatzi langintzac, Errosario-bizicorren amarreco-ac, Ordu-santuba, Jesus-eriotzaratuaren-ganaco erreguarekin, gau-egunetaraco mundu-gucico Mezaen erlojua edo orduacuskiya, onorezco goardazale zembaitec usatzen dutena, comunio ordaiñtzallea, JESUS-EN Biotzaren escapulayo, paša edo medalla, eta iduriac euki, onratu ta zabaldutzea, eta orrelaco jayera-gauz onac egitea.

Sarreraco Escañi - erregua eta chartela.

Ni

Jesucristo gure Jaun gugatic gurutzean ill zanaren, eta bere Biotz irazeki, Aldareco Sacramentu guziz Santuan amorioz gugatic suturic dagoanaren gloriya ta omena geyago ta geyago aurrerazitzeco; eta amoriozco escutamen edo misterio onetan egiten zaizcan bidebagekeriac ordaiñtzeco ta desiraintzeco; bat egiten naiz Billera-Jaincozco onetan alcaturic dauden guziakin; parte-artunai-

rik-ere berari emanac diran barcazio santuetan, eta gozanairic bertan egiñ oi dan on-ezpirutuzco guzti-guztiaz, nere becatuen ordañean, eta purgatorioco animen sufrajioraco. Aritzazu, Jesus maitea, zere Biotz donean Jaincozco-Batzarre onetan batutaco danac, zure maitetasun Jaungoicozcoan irazekiac izan-ditezen, eta zere agindu santuac, ta beren bizimoduco betebearrac osooso gorde-ditzaten. Amen.

Erromaco SANTA MARIA PAKECOA deritzan Elizan mundu guziraco ipiñia dagoan Jesus-en Biotza-rekico leenengo Congregazioan batutzeco sartu izan da

*D. Billera
santuan 18 garren urteco illaren
egunean.*

ZUZENTZALLE,

ZUZENZALEORDE,

